

JARDUERA FISIKO ETA KIROL IKASTAROEN ARAUTEGIA	NORMATIVA DE LOS CURSOS DE ACTIVIDAD FÍSICA Y DEPORTE
<b>1.- Ikastaroetan izen-ematea</b>	<b>1.- Inscripciones</b>
<p>Izena emateko orria bete beharko da Udala Kiroldagiko bulegoan edo webgune bidez.</p> <p>Pertsona bakoitzak aurretiko izen-emate eskaera bakar bat egin dezake.</p> <p>Aurretiko izen-emate bakoitzean bi aukera jarri ahal izango dira. Baina, betiere, kontuan izanik, plazarik izango balitz, bietako bat bakarrik hartuko dela, lehenengo aukera lehenetsiko litzateke</p> <p>Taldeak sortzeko, gutxieneko eta gehieneko inskripzio kopuru bat egongo da. Gehieneko mugaren kopurua gainditzen bada, plazak zozketa bidez esleituko dira.</p> <p>Tokirik gabe geratu direnak aukera izango dute tokia dagoen beste talde batean izena emateko, taldea osatu arte.</p> <p>Plaza libreak geratzen diren ikastaroetan, plaza kopurua baino pertsona gehiagok ematen badute izena, bigarren zozketa baten bidez esleituko dira.</p> <p>Hiruhileko ikastaroetan, denboraldian ikastarorik egin ez duten ikasleek lehentasuna izango dute zozketan.</p> <p><i>Salbuespena:</i> helduen igeriketa ikastaroak "Hastapen maila". Helburua igerian ikastea denez, hiruhileko bat egin duenak lehentasuna izango du hurrengo hiruhilekoan, eskaera berrien aurretik.</p>	<p>Se deberá cumplimentar el impreso de inscripción en las oficinas del Polideportivo Municipal o por internet a través de la página web.</p> <p>Sólo se admitirá una solicitud de preinscripción por persona.</p> <p>En cada preinscripción podrán indicarse dos opciones. Teniendo siempre en cuenta que, en caso de haber plaza, solo se tendrá en cuenta una de ellas, prevaleciendo la primera</p> <p>Todos los cursos tendrán un número mínimo de personas inscritas para su desarrollo. En aquellos cursos en los que haya más personas inscritas que número de plazas, estas se adjudicaran por sorteo</p> <p>Quienes se hayan quedado sin plaza, podrán inscribirse en otro grupo en el que haya plaza hasta completar el grupo.</p> <p>En los cursos en los que queden plazas libres, y se inscriben más personas que el número de plazas existentes, estas se adjudicarán mediante un segundo sorteo.</p> <p>En los cursos trimestrales, el alumnado que no haya realizado ningún curso en la temporada, tendrá preferencia el alumnado que no haya realizado ningún curso en la temporada.</p> <p><i>Excepción:</i> Cursos de natación de adultos "Nivel de iniciación". Dado que su objetivo es aprender a nadar, quien haya realizado un trimestre, en el siguiente tendrá prioridad sobre las nuevas solicitudes.</p>
<b>2.- Taldeak osatzeko gutxieneko eta gehieneko erabiltzaile kopuruak</b>	<b>2. Número mínimo y máximo de personas para formar grupos</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li><i>Fitness aretoan egiten diren jarduerak</i></li> </ul> <p>Aerobika-multifitnessa: 14/20;</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li><i>Cursos Sala Fitness</i></li> </ul> <p>Aerobic-multifitness: 14/20;</p>

<p>Pilatesa: 9/12; Indoor Walking-a: 9/12; Ciclo indoor: 14/20; Multifitnessa (Mantentze gimnasia): 14/20; Konbinatuak: 9/12; Zunba: 14/20; Body Punba: 9/14; Korea+luzaketak: 9/14; Korea (30'): 9/12; Hipopilatesa: 9/12; Zoru Pelbikoa (emakumeentzat): 9/14; Total Training-a: 9/14; TRX: 9/12; Boxeo (emakumeentzat): 9/14</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Uretan egiten diren jarduerak</i></li> </ul> <p>Haurtxoak: 5/10; Haurdunak: 1/8; 3 urte: 5/10; 4 urte: 5/12; 5-6 urte: 9/12 (hiruhilekoetan: 7/12); 7-8 urte: 9/12; 9-11 urte: 9/14; Aquagyma 65+: 12/14; Mantentze igeriketa baxua: 9/14; Mantentze igeriketa: 9/14; Hastapena helduak (1 eta 2 maila): 7/10; Mantentze igeriketa 65+: 12/14; Aquagyma 65+:12/14</p>	<p>Pilates: 9/12; Indoor Walking: 9/12; Ciclo indoor: 14/20; Multifitness (Gimnasia de mantenimiento): 14/20; Combinados: 9/12; Zumba: 14/20; Body Punb: 9/14; Core+estiramientos: 9/14; Core (30'): 9/12; Hipopilates: 9/12; Suelo Pélvico (mujeres): 9/14; Total Training: 9/14; TRX: 9/12; Boxeo (mujeres): 9/14</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Actividades acuáticas</i></li> </ul> <p>Bebes: 5/10; Embarazadas: 1/8; 3 años: 5/10; 4 años: 5/12; 5-6 años: 9/12 (trimestral: 7/12); 7-8 años: 9/12; 9-11 años: 9/14; Aquagym 65+: 12/14; Natación mantenimiento bajo: 9/14; Natación mantenimiento: 9/14; Iniciación adultos-as (nivel 1 y 2): 7/10; Natación mantenimiento 65+: 12/14; Aquagym 65+:12/14</p>
<p><b>3.- Hizkuntza</b></p>	<p><b>3.- Idioma</b></p>
<p><i>3.1.- Euskaraz.: ikastaro hauek euskaraz soilik izango dira. Taldean ulertu bakarrik egiten duenik edo hitz egiteko zailtasunak dituenik baldin badago, begiraleak beharrezko neurriak hartuko ditu haiek ikastaroa eroso egiteko, baina ikastaroa euskaraz izateari utzi gabe.</i></p> <p><i>3.2.-Nagusiki euskaraz: ahalik eta gehien erabiliko da euskara. Hala ere, batzuek ez badute ulertzen eta komunikazioa espainieraz behar badute, haiekin ere agurrak eta azalpen ulerterrazak euskaraz izatea sustatuko da, adibidez: egun on, hartu, eseri, goazen...</i></p>	<p><i>3.1.- En euskera: Estos cursos se impartirán exclusivamente en euskera. Si en el grupo hay personas que sólo entienden o que tienen dificultades para hablar, el monitor o monitora tomará las medidas necesarias para que estos usuarios o usuarias puedan realizar cómodamente el curso, pero sin dejar de ser un curso en euskera.</i></p> <p><i>3.2.-Principalmente en euskera.: Se utilizará mayormente el euskera. Sin embargo, si algunas personas no lo entienden y necesitan que la comunicación sea en español, también se fomentará el uso de saludos y palabras sencillas en euskera: buenos días, coger, sentarnos, ir...</i></p>
<p><b>4.- Kuotak eta ordainketa modua</b></p>	<p><b>4.- Cuotas y forma de pago</b></p>
<p>Ikastaroen kuotak urtero Udal Osoko Bilkuran onartuko diren tasak izango dira.</p> <p>Plazen zozketak egin ondoren kobratuko dira kuotak, beti ere, interesdunak izena ematerakoan eskatu duen eran.</p> <p>Ikastaroetan izena ematean, ordaintzeko aukeratu den bidea edozein izanda ere, ikastaro osorako dela ulertuko da; ondorioz, ordainketaren zati guztiak egin behar dira, nahiz eta klaseetara</p>	<p>Las cuotas de los cursos estarán sujetas a las tasas aprobadas anualmente por el Pleno del Ayuntamiento.</p> <p>El cobro de las cuotas se realizará una vez realizados los sorteos, en la forma que haya solicitado la persona interesada en el momento de la inscripción</p> <p>La inscripción en los cursos, cualquiera que sea el medio de pago elegido, se entenderá que es para todo el curso, debiendo realizarse todas las cuotas del mismo,</p>

<p>ez joan.</p> <p><i>4.1.- Ordaintzeko erak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 4.1.1.-Transferentzia Ordainketa bakarrean. Udalaren kontu korrontea kiroldegiko bulegoan eskura daiteke. Ondoren, ordainagiria kiroldegiko bulegoetan aurkeztu edota posta bidez bidali behar da (<a href="mailto:kirola@hernani.eus">kirola@hernani.eus</a>) alta behin betiko gauzatzeko.</li> <li>• 4.1.2.- Txartelarekin. Ordainketa bakarrean kiroldegiko bulegoan.</li> <li>• 4.1.3.- Banku-helbideratzea. Hileroko ordainketa. Aukera honekin, nahitaezkoa da helbideraketa. Hileko kuotak honela kalkulatu dira: ikastaroaren prezio osoa hartuta ikastaroa irauten duen hilabete kopuruen artean zatituta.</li> </ul>	<p>aunque no se asista a las clases.</p> <p><i>4.1.- Formas de pago</i></p> <p>4.1.1.-Transferencia En un único pago. Cuenta corriente municipal disponible accesible en la oficina del polideportivo. Posteriormente, el justificante de pago deberá presentarse en las oficinas del polideportivo o enviarse por email (<a href="mailto:kirola@hernani.eus">kirola@hernani.eus</a>) para proceder al alta definitiva.</p> <p>4.1.2.-Con tarjeta. Pago único en la oficina de polideportivo.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 4.1.3.- Domiciliación bancaria. Pago mensual. Con esta opción es obligatoria la domiciliación. Las cuotas mensuales se calcularán dividiendo el precio total del curso entre el número de meses de duración del mismo.</li> </ul>
<p><b>5.- Altak</b></p>	<p><b>5.- Altas</b></p>
<p>Behin betiko alta emango da honako egoera hauetan:</p> <p><i>5.1. Ikastaroa hasi aurretik</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzenean emango da alta, baldin eta aldeztu aurretik ikastaroan izena eman bada, argitaratzen diren epeetan, eta eskatutako taldean plaza esleitzen bazaio, dela zozketaren bidez, dela plaza nahikoa dagoelako.</li> <li>- Ikastaro batean izena ematen den unetik plaza librerik geratzen bada</li> </ul> <p><i>5.2. Behin ikastaroa hasita</i></p> <p>Plaza librerik geratzen bada, izena eman eta onartu ondoren. Kasu hauetan, altaren dataren arabera, honela ordainduko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastaroaren lehen hilabetean bada, osoa ordainduko da.</li> <li>- Ikastaroaren bigarren hilabetetik aurrera bada, hilekoari dagokion zati proportzionala ordainduko da.</li> </ul>	<p>Las altas se considerarán definitivas en los siguientes supuestos:</p> <p><i>5.1. Antes del inicio del curso</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Se dará de alta directamente siempre que previamente se haya inscrito en el curso en los plazos que se publiquen y se le adjudique plaza en el grupo solicitado, bien por sorteo o por existir plazas suficientes.</li> <li>- Si en un curso quedasen plazas libres desde el momento de la inscripción.</li> </ul> <p><i>5.2. Una vez iniciado el curso</i></p> <p>Si quedasen plazas libres una vez inscritas y aceptadas. En estos casos, en función de la fecha de alta, se abonará de la siguiente manera:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Si es en el primer mes del curso se abonará la totalidad.</li> <li>- Si es a partir del segundo mes del curso, se abonará la parte proporcional de la mensualidad.</li> </ul>
<p><b>6.-Ordaindu gabeko ordainagiria</b></p>	<p><b>6.- Pagos pendiente</b></p>
<p>Zatiren bat ordaindu gabe geratzen bada hura kobratu ahal izateko dagokion espedientea zabalduko da. Horrekin batera, zorduna bazkidea bada, dituen erabiltzaile- eskubideak ere galduko ditu, hau da, udalaren kirol instalazioen</p>	<p>Si quedase alguna parte pendiente de pago se abrirá el correspondiente expediente para su cobro. Asimismo, si la persona deudora fuera socio/a, perderá los derechos de las personas usuarias de que dispone, es decir,</p>

gainerako zerbitzuak ezingo ditu erabili.	no podrá utilizar el resto de los servicios de las instalaciones deportivas municipales.
<b>7.- Bajak</b>	<b>7.- Bajas</b>
<p>Oro har, ikastaroak hasi ondoren egiten diren baja-eskaerak zuzenean onartuko dira, eta ordaindutakoa osorik itzuli, epe hauen barnean eginez gero:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasturte osokoetan, lehen bi asteetan</li> <li>• Hiruhilekoetan, lehen astean</li> </ul> <p>Hilabeteko jardueretan, berriz, behin klaseak hasita ez dira bajak onartuko, eta, beraz, ez da dirua itzuliko.</p> <p><i>7.1.- Epez kanpo egiten diren baja- eskaerak</i></p> <p>a).- Baldintzak betez gero, kasu hauetan onartuko dira, betire, dagozkion agiriak aurkeztuta:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>◦ Arazo medikuak tarteko jarduerarekin ezin duela jarraitu egiaztatzen duen ziurtagiri medikoa</li> <li>◦ Lanean sortuko diren aldaketak direla eta, ikastaroekin jarraitzea ezinezkoa dela egiaztatzen duen agiria.</li> <li>◦ Beste herri batera bizitzera aldatu izanez gero, errolda agiria.</li> </ul> <p>b).-Hiruhileko eta urteko ikastaroetan bakarrik onartu ahal izango dira, beti ere, itxarotzezterrendako pertsona batek (lehentasuna izango du) edo beste batek ordezkatu badezake. Plaza bete ezin bada, ez da bajarik onartuko eta, beraz, ez da diru-itzulketarik egingo</p> <p>Baja eskatzearen arrazoiak justifikatzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia eskatu ahal izango du Udalak</p>	<p>Con carácter general, las solicitudes de baja que se realicen con posterioridad al inicio de los cursos serán admitidas directamente y se procederá a la devolución íntegra de lo abonado, siempre que se realicen dentro de los siguientes plazos:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• En los cursos anuales, durante las dos primeras semanas</li> <li>• En los cursos trimestrales, durante la primera semana</li> </ul> <p>En las actividades de un mes no se admitirán bajas una vez iniciadas las clases, por lo que no se devolverá el dinero.</p> <p><i>7.1.- Solicitudes de baja fuera de plazo</i></p> <p>a) Cumplidos los requisitos, se admitirán, previa presentación de la documentación correspondiente, en los siguientes supuestos:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>* Mediante certificado médico que acredite que no puede continuar con la actividad intermedia</li> <li>* Si se comprueba que no es posible continuar con los cursos debido a cambios producidos en el trabajo</li> <li>* Certificado acreditativo de cambio de residencia a otra localidad. Para ello se deberá presentar el empadronamiento.</li> </ul> <p>b) Solamente se podrán admitir en los cursos trimestrales y anuales, siempre que se pueda sustituir por una persona, tanto de la lista de espera (que tendrá preferencia) u otra. Si no se puede cubrir la plaza, no se admitirán bajas y, por tanto, no habrá reembolso.</p> <p>El Ayuntamiento podrá requerir toda la documentación necesaria para justificar los motivos de la solicitud de baja</p>
<b>8.- Ikastaroak hasita, aldaketen eskaerak</b>	<b>8.- iniciados los cursos, solicitud de cambios</b>
<p>Behin ikastaroak hasita, kasu hauetan bakarrik onartuko da taldez aldatzea edo ordutegia egokitzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Plaza liberrik badago.</li> <li>- Txandaka lan egiten bada</li> </ul>	<p>Una vez iniciados los cursos, sólo se admitirá el cambio de grupo o la adaptación horaria en los siguientes casos:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Si hay plazas libres.</li> <li>- Si se trabaja a turnos</li> </ul>

9.- Diru-itzulketa eskaerak	9. Solicitudes de devolución
<p>Diru-itzulketak gauzatzeko interesdunak eskaera idatziz egin beharko dio Jarduera Fisiko eta Kirol sailari.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>7.1.a). puntuan aipatzen diren kasuetan, baja onartzen bada eta ikastaroa aldez aurretik ordainduta badago, proportzionalki itzuliko da emango ez den klase kopurua, onarpen datatik zenbatzen hasita.</li> <li>7.1.b). Puntuan aipatzen diren kasuetan, eskatzaileak ordainduko ditu kuota guztiak ordezkokoak matrikula egiten duen unera arte.</li> </ul>	<p>Los reintegros se realizarán por solicitud escrita de la persona interesada al Departamento de Actividad Física y Deportes.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>En los supuestos a que se refiere el punto 7.1.a), si se acepta la baja y el curso está abonado con antelación, se devolverá proporcionalmente el número de clases que no se vayan a recibir contar desde la fecha de admisión.</li> <li>7.1.b). En los casos a que se refiere el punto anterior, el solicitante abonará todas las cuotas hasta el momento en que la persona sustituta</li> </ul>
10.- Espazioen antolaketa eta erabilera	10. Organización y uso del espacio
<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Uretako ikastaroak</b> Kale banaketa igerileku handian: Gutxienez lau (4) kale egongo dira beti erabilgarri bazkideentzat. Beste lauak kluboen, ikastaroen, eskola kirolaren edota edozein talde-eragileren artean banatuko dira. Kaleen erabilera helduen ikastaroetan (hastapena izan ezik): talde bakoitzean bi kale erabili ahalko dira, baldin eta ikastaro gehiago ez badago</li> <li><b>Fitness eremuak:</b> ikastaro bakoitzaren ezaugarrien arabera programatuko dira.</li> </ul> <p><b>Aldagelak.</b> Umeei aldagelan laguntzera datozen pertsonak horretarako adierazita dauden guneeetan soilik ibiliko dira, eta ezingo dira, inolaz ere, igerileku gunera sartu. Ume bakoitzeko heldu bat soilik sartu daiteke laguntzera.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Cursos de agua</b> Distribución de calles en la piscina grande: Siempre habrá al menos cuatro (4) calles disponibles para las personas abonadas. Las otras cuatro se repartirán entre clubes, cursos, deporte escolar u otros colectivos</li> <li>Utilización de las calles en los cursos de personas adultas (excepto iniciación): se podrán utilizar dos calles por grupo, siempre que no haya más cursos.</li> <li><b>Zonas de fitness:</b> se programarán en función de las características de cada curso.</li> </ul> <p><b>Vestuarios.</b> Las personas que acudan a acompañar a las niñas y niños, lo harán únicamente en las zonas indicadas para ello, no pudiendo acceder, en ningún caso, a la zona de piscina. Sólo podrá acceder una persona adulta por niña/o</p>

Hernani, 2025eko irailaren 29a  
Axier Mingo Arruabarrena  
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Arloko zinegotzi-arduraduna